

KOPLAK TXISTU BATEAN

Txapelketako finala
hapenning originala
susmoa dut ikututa
denok atera giñala.
Huts dezadan oriñala.

Kargudunek erregalo.
Zein jator zein txorimalo
bereizi ezean, malo.
Lasai jo batzuei txistu
ta beste batzuei txalo.

Sari banaketan doa
min subliminal mordoa
baezpare itxi ahoa.
Prudentziaz oholtzan kantuz
ez da aipatzen laidoa.

Bertsogintzaren elizan
progresismoa kalizan
ta kontsentsua gerizan.
Ardi beltzen artaldean
zeinek nahi du txuri izan?

Txistujotzaile petoa
bi hankadun panfletoa
ia dugu etxekoa
distantzian begiratzuz
espezimen konpletoa.

Txistulari, txistulari
honi, horri edo hari?

Lehen instituzioari
ta orain sinpleki hire
alderdiko ez denari?

Txistujotze anonimo
ausardizko keinu irmo
laido izkutu maximo
aurpegira egindako
mintzoaren antonimo.

Ultrak txistuka Madrilen
hemen ez haiek abilen.
Gizalege ximple baten
kategoriaz nenbilen.
Urruntxo ote dabilen...

Noizbait Kutxan Garitano
ta Ahaldundian Olano
governatzen mano-mano
txistua despistatuta
ia ordun ze arrano.

Aberriaren genoma
ezkerraren melanoma.
Estilo ezagun baten
ustelduraren sintoma.
Honekin puntu ta koma;

Mini-faxismo boladak
dira gure txistukadak.
Porrot historiko baten
azkenengo ostikadak
ala garaile taupadak?

Tik zaharrei oxigeno
denboraz bihurtzen deno

talibana postmoderno
Hori ere askoz hobea
ez da izango, ta bueno.

Gustu txarrez irten zena
eta etortzen ez dena
oroituz, puntu zuzena:
giro hau denontzako da
bertsoa ez da zuena.

Akazi eta elorri
zer arantza, ta zer orri?
Horra hamalau koplak gorri
pixkat estutu ezker
hi izan hintekeen horri.

Askok daukagu otsoa
barruan talibantxo
gure baitako pultsoa
gakoa da hautatzea
zertara jarri bitxo.

'Maite zaituztet oraindik'
dator Xalbarorrendik
dana ote dator handik...
horrelako fregau baten
sartzeko zeinek esan dik?

Arrasaten, 2011ko abenduan